

**Eskola kiroleko denboraldi berri bat martxan dugu eta honako gida honen bidez, denboraldi honen kontuak azaldu nahi dizkizuegu. Garrantzitsua da denok norabide berean lan egitea gure eskola kirola haurrentzat hezigarria izan dadin. Helburu horrekin eta zalantzak argitzeko asmoz hona hemen aurtengo Eskola Kirolaren GIDA:**

## **1.- GURASO ARDURADUNEN ZEREGINAK**

Talde bakoitzari bi guraso arduradun jartzen dizkiogu eguneroko antolakuntzan laguntzeko. Talde guztien gainean egotea ezinezkoa zaigu, beraz, taldearen jarraipena hobetzeko jarritako figurak dira. Honek ez du esan nahi guraso arduradunak jardunaldi guztietara joan eta joaten denetan taldearen eta haur guztien arduraren duenik. Jardunaldietan beti gurasoren bat izango dela ziurtatu beharko du baina ez du zertan bera izan beharrik, arduraren hauek guraso guztien artean banatu behar dira. Guraso guztien lana da taldearen gainean egon eta jardunaldiak ahalik eta ondoen ateratzeko ahaleginak egitea.

Zereginak:

- Asteburuan zenbat kide izango diren gainbegiratu. Gutxiegi badira koordinatzaileari jakinarazi garaiz neurriak hartzeko. *(antolatzaileari jakinarazi, taldea osatzeko kirolariak hartu edo aurkariari esan bertan behera geratzen dela jardunaldia)*
- Jardunaldira taldea laguntzera guraso bat gutxienez joango dela ziurtatzea.
- Entrenatzaileekin harremanetan jarri eta taldeko komunikazioa hobetzeko whatsapp taldea sortzea. Taldeko gurasoen artean informazioa erraz zabaldu eta elkarren artean konfiantza izateak asko laguntzen du taldearen egunerokoan sortzen diren egoeretatik ikasteko. *(talde batzuk whatsapp gabe ere komunikazio handia lortzen dute)*
- Taldeko inork ezer adierazi nahi badu, haien iritzia koordinatzaileari helaraztea.

## **2.- GURASO GUZTIEN ZEREGINAK**

Guraso arduraduna taldea eta koordinatzailearen arteko zubia sendotzea den bezala, guraso guztiek dituzte arduraren propioak eta hauek oso garrantzitsuak dira. Norbere ardurak beteta dena errazagoa izaten delako:

Zereginak:

- Zuen seme-alaben taldeak guraso arduraduna duen ala ez ziurtatu eta taldeko komunikazio taldea osatua dagoen jakitea.
- Norbere seme-alaba jardunaldietara joatea animatu eta motibatu. Ezin duten egunetan ahal bezain laster entrenatzaileari jakinarazi antolaketan kontuan izan dezaten. Seme-alabek oso gustuko ez duten kirolean ere parte hartzera animatu eta motibatu. Helduok eragin handia dugu haurren aurreiritzietan eta talde eta antolatzaileekiko konpromisoa hartu genuenez, hori ondo betetzea etxeko lan garrantzitsua da.

- Jardunaldietan gure taldeko haurren, helduen eta entrenatzaileen jarrerren erantzule gara guztiok. Jarrera ezkorrik ez dugu onartuko eta taldean giro ona eta umorea nagusi izatea denon ardura da. Giro onarekin gauza gehiago landu ditzakegu eta sortzen diren gatazkak askoz errazago konponduko ditugu.
- Taldeko haur guztiei animatu eta babesa eman. Ondo egiten dituzten gauzak azpimarratu eta jardunaldiak festa izan daitezen umoretsu etorri.
- Norbere seme-alabak taldekide guztiei parte hartzen laguntzen diela ziurtatu. Lagun denak kontuan izaten dituztela ziurtatu eta hala ematen ez bada gaia landu seme-alabekin.
- Euria eta eguraldia hotz dagoenetan, jolastu berri duten haurrei janztea gogoratu, bustita daudenei aldatzeko esan, ura eraman... Entrenatzaileak nahiko lan badute bestela ere eta gurasoen begirada oso ondo dator kontu hauetarako.
- Entrenatzaileei zuen babesa eta konfiantza erakutsi. Haiek gustura egon daitezen konfiantza giroa sortu eta zuen babesa adierazi.

*Tartean behin egitea oso ederra litzateke:*

- Taldeko giroa eta harremanak hobetzeko balio dezakeen edozein ekintza antolatu (hamaiketako, bazkari... eta antzerako ekintzak asko sendotzen dute taldea eta larunbatetako jardunaldia). Talde batzuk jardunaldi antolatu izan dute hamaiketako eta beste batzuk tarteka bazkariak ere egin dituzte. Inork denboraldi amaieran ere egin dute festatxoaren bat guraso eta haurrak elkarrekin. Halako ekintzak, jardunaldi eguna asko janzten dute. Jolastutako momentuaz eta emaitzaz gain osagai asko gehitzen dizkiolako eta haurrak jolasten egun ona izan ez arren beste gauzeekin gustura egon eta disfrutatzen laguntzen dietelako.

### **3.- KAMISETA**

Kiroletako kamisetak salgai daude ikastolan. Behar duenak eskuragarri ditu 30 eurotan. Partiduetarako beharrezkoa da. Galtzamatz beltzak erabiltzen ditugu jardunaldietan. Horiek norbere kontura.

### **3.- ENTRENATZAILEAK**

Dbh-ko eta Batxilergoko ikasle bolondresak izaten dira gure taldeen entrenatzaileak. Badakigu, beraiek ere, talde bat gidatzen dauden lehenengotako aldia izanik, badituztela hutsune eta gabeziak. Baina gaztetxoaren eta entrenatzaileen artean sortzen diren dinamikak oso aberatsak iruditzen zaizkigu. Halako ardurak hartzen ikasteko ere inguru egokia dela uste dugu eta oso positiboki baloratzen dugu gure ikastolan dugun sistema. Dirurik kobratu gabe, taldeak kudeatzera animatzen dira gure gazteak eta ikaspena oso aberasgarria da. Dauden hutsuneak bete eta ikaspena ahalik eta aberatsena izateko, oso beharrezko dugu taldeko gurasoak ere gainean egotea, babesa emateko, hurrekiko zaintza ikasteko etab... Beraz, haiengana gerturatu, lagun giroa sortu eta konfiantzako harreman bat sortzen laguntzea eskatzen dizuegu gurasoei.

## **4.- EGUTEGIA**

Egutegia ikastetxe, udala eta kirol elkarten artean osatzen dugu. Urte hasieran zirriborro bat osatzen dugu eta aldaketarik ez egiten saiatzen garen arren, sarritan, moldaketak egin behar izaten ditugu urtean zehar. Hauek jakinarazten joango gara.

Eskola kirolean izena ematen dugunean, urte osoan gozatuko ditugun kirol guztietan ematen dugu izena. Taldearekiko, antolatzaileekiko, aurkariakiko eta kirol elkarteekiko errespetuz, konpromisoa eskatzen dugu. Amona bisitatzera, eskiatzera, medikuarengana... halako egoeratan ulertzen dugu parte hartu ezina. Soilik taldeari garaiz jakinaraztea eskatzen dugu. Baina kirol bat oso gustuko ez dugulako ez agertzea ez dugu onartzen eta kontu honekin zorrotz izatea eskatzen dizuegu. Konpromisoa izaten erakutsi behar diegu gure ikasleei eta antolakuntzarekiko errespetua ere. Gehien gustuko ez ditugun kirolean ere ondo pasatzen erakutsi eta kirol guztietan ikasten diren askotariko ikaspenak haurrentzat oso beharrezkoak direla sinesten dugu.

## **5.- TALDE MISTOAK**

Urteetako hausnarketa eta hainbat lanketaren ostean, duela 3 denboraldi ekin genion LH3ko ikasleekin talde mistoetan parte hartzeari. Jakitun gara aldaketa honek lanketa handia eskatzen duela eta eskola kirolaren inguruan gabiltzanok hezkidetzan hezteak duen garrantzia. Hala, formazio eta hausnarketa saioez osatu genuen talde mistoetara pasatzeko apustua.

Badakigu bide honetan, ikastetxeen artean, irizpide eta abiadura ezberdinak daudela eta honek lehen urteetan egoera bereziak sortu ditzakeela. Beti talde mistoen kontra ezin jolasteak egoera bereziak sortzen ditu eta helduon lana da egoera horiek hezigarri bilakatzea. Egun, ikasleen artean, mutil eta nesken artean ikusten ditugun arazoak gainditzeko bide bat dela uste dugu. Adin hauetan kirol maila oso ezberdinak daude parte hartzaileen artean eta hori berdin gertatzen da talde misto eta ez mistoetan.

Orain arte ikastola barneko ekintza eta txapelketetan izandako emaitzak oso positiboak izan dira. Azken urteotan, gure ikasleak, denak elkarrekin jolastera ohitzen ari dira eta ondorio garbiak ateratzeko bide honi urte batzuek heldu behar diogula sinetsita gaude. Eredu honen hasieran, beldur eta arazo nagusia, kide batzuek besteekin hainbeste ez kontaktzea izaten da. Honen aurrean, guraso eta heldu guztion ardura da, gure seme alabekin gaia landu eta haien jolasteko moduz hitz egitea. Gaitasun ezberdinetako kideen artean jolastean norbere maila moldatzen erakutsi behar diegu gure gazteenei (izan talde misto edo ez). Taldekideak errespetatu eta denei gozatzen eta ikasten laguntzeko baldintzak sortuz denok gehiago gozatuko dugu.

Gainontzeko ikastetxe gehienek geroz eta maila gehiagotan talde mistoak dituzte. Beraz, ahal dugun neurrian, gure taldeak, talde mistoekin jarriko ditugu jolasean nahiz eta jakitun garen tarteka ez mistoekin aritzea tokatuko zaigula. Egoera guztietatik ikastea lortzea dugu helburu.

## **5.- WEGBUNEA ETA ASTEROKO INFORMAZIOA**

Eskola kirolari buruz dagokion informazio guztia [www.zarauzkoikastola.eus](http://www.zarauzkoikastola.eus) helbidean zintzilikatzen dugu. Bertan, astero informazioa posta elektronikoan jasotzeko aukera dago. Bertan izena eman eta astero bidaliko dizuegu jardunaldiaren berri eta tartean behin hausnarketarako hainbat testu eta albiste ere.

## **6.- ENTRENAMENDUAK**

Astean entrenamendu bana du talde bakoitzak. 16:30etatik 17:30etara. Euria egiten duenerako ez dugu azpiegitura nahikoa taldeek aterpean entrenatzeko beraz entrenamenduak bertan behera geratzen dira. Talde bakoitzak bere entrenamendu egunak jarriak ditu. Inork tokatu zaion egunean ezin badu, beste egunean entrenatzeko aukera du. Jolastu dagokion taldean egin beharko duelarik.

**LH3-** Astelehena edo asteartea

**LH4-** Asteazkena edo osteguna

**LH5-** Astelehena edo asteartea

**LH6-** Asteazkena edo osteguna

## **7.- IKASTAROAK**

Eskola kiroleko ekintzen barruan ikastaro ezberdinak eskaini izan ditugu urteetan: Txirrindularitza, atletismo, xakea, pilota eskola... ekintza hauek aurrera ateratzeko guraso eta ikasle ohien laguntza beharrezkoa da. Saio hauek gidatzera animatuko diren jendea behar dugu. Pasa den ikasturtean, guraso batzuei esker martxan jarri genuen berriz pilota eskola.

## **8.- KIROL AZPIBATZORDEA**

Guizti hau aurrera eramateko Kirol Azpibatzerdea dugu. Kirol koordinatzailea, ikastolako langileren bat eta gurasoez osatutako taldetxoa da. Hilean behin elkartzen gara eta eskola kirolaren inguruko kontuak antolatzen ditugu. Bertan parte hartu nahi duen oro ongi etorria izango da.